

Urtarrilaren 31, Gazteen Europako Eguna. Europako herritartasunari buruzko inkesta

Euskadiko gazteen ustez, Europako herritar izateak berekin dakar EBko herrialdeetako edozeinetan ikasi, lan egin, bizi eta osasun-zerbitzuak eta gizarte-ongizatea eskuratu ahal izatea

Zer ulertzen dute gazteek “Europako herritar izate” esamoldearekin? [Gazteen Euskal Behatokia](#) gai honi eta beste askori buruzko txosten bat prestatzen ari da, “Gazteen iritziak herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruz” izenekoa. Bertan, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziak EBko gainerako herrialdeetako iritziekin konparatuko dira. Handik atera dira jarraian azalduko ditugun datuak.


EAEko gazteen %94rentzat, Europako herritarra izateak Europar Batasuneko edozein herrialdetan ikasi ahal izatea esan nahi du. Ideia horri dagokionez, Euskadiko gazteen ehunekoa EBko 27 herrialdeetako batez bestekoarekin bat dator. Iritzi honekiko adostasun-mailarik handiena Letonia eta Eslovakiako gazteei dagokie; txikiena, aldiz, Estoniakoei (%73,9).

EAEEn, gazteen %89,1en ustez, EBko herrialdeetako edozeinetan lan egin ahal izatea Europako herritar izatearen barnean dago. Oraingoan ere, ideia horrekiko adostasun-maila oso antzekoa da EAEEn eta EB osoan (batez bestekoa, %88,1).

EBko edozein herrialdetan osasun-zerbitzuak eta gizarte-ongizatea eskuratzea ere EBko herritar izatearekin lotzen dute EAEko gazte gehienek (%85,5). Ideia hori hedatuxeago dago Euskadiko gazteen artean Europa osoko gazteen artean baino (%81,5).

EAEko gazte gehienek uste dute Europako herritarra izateak barne hartzen duela Europako beste herrialde batera iraukorki joateko eskubidea (%85,1). Kontzeptu hori Europako herritar-izate kontzeptuarekin lotzen dutenen proportzioa handiagoa da EAEEn EB osoan baino (%77,4). Frantziako gazteak dira ideia horrekiko adostasun-mailarik garaiena adierazi dutenak (%90,3) eta Bulgariakoak txikiena erakutsi dutenak (%55,3).

Azkenik, Europako herritar izatearen baitan, kontzepturik eztabaidatuena hau izan da: herrialdekoak ez direnek bizi diren lekuko toki-hauteskundeetan bozkatzeko edo hautetsiak izateko eskubidea. Ideia honekiko adostasun-maila %55,7raino heldu da EAEko gazteen artean (beraz, gehiengoa ados dago), eta %48,7raino Europa osoko gazteen artean. Luxenburgokoak dira eskubide horretan hein handiagoan sinesten dutenak (%68,8). Hori hein txikienean uste dutenak Hungariakoak dira (%24,3 baino ez).



Europari dagozkion datuak Europako Batzordearen “**Young Europeans. A survey among young people aged between 15-30 in the European Union**” azterlanetik hartu dira ([Flash Eurobarometer 202](#)).